

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Langile lan kontratudun finkoen izendapena argitaratzea

Alkatearen dekretua, zeinaren bidez onesten baita langile lan kontratuduna izendatzea Lantziegoko Udaleko zerbitzu askotarako beharginaren plazarako, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan.

Aztertu da: Iraupen luzeko enplegua egonkortzeko espedientea Lantziegoko Udaleko zerbitzu askotarako beharginaren lanpostuan lehiaketa sistemaren bidez lanbide kategoriara sartzeko izapidetu zen, eta 2022ko abenduaren 16ko 144. zenbakiko ALHAOn (126. zk.) argitaratu ziren oinarriak.

Aztertu da: Alkatearen 131/2024 zenbakiko Ebazpena, Pedro María Miranda Arana (NAN: XX586XXX) Lantziegoko Udaleko zerbitzu askotarako behargin izateko izendatzen duena. Lanpostu hori praktiketan egongo da hiru hilabetez, Lantziegoko Udaleko zzerbitzu askotarako behargin lanpostua betetzeko deialdiaren oinarrietako 15. artikulua arabera. 2024ko azaroaren 6ko ALHAOn argitaratu da.

Interesdunak deialdiko 14. oinarri orokorrean eskatutako dokumentazioa aurkeztu du horretarako ezarritako epean. 15. eta 16. oinarri orokorrek ezartzen dutenez, epaimahai kalifikatzaileak proposamena egin ondoren, hautagaia langile lan kontratudun izendatuko da probaldian, eta aldi horren iraupena 16.2 oinarri orokorrek ezartzen du, eta hiru hilabetezko izango da lanbide taldeentzat.

Aztertu da: 2024/135 Ebazpena, urriaren 29koa, Lantziegoko Udalaren praktikaldi/probaldiari buruzko instrukzioa onesten duena.

Aztertu da: Instrukzioaren 5. artikulua babesean, praktikak baliozkotzeko prozedura ofizioz hasi zela, eta izangaia baliozkotzeko proposamena egiteko eskatu zitzaizola epaimahaiari.

Praktiketako tutorearen baliozkotzearen aldeko txostena, 2024ko urriaren 29koa.

Epaimahai kalifikatzailearen baliozkotzea onartzea, epaimahai kalifikatzaileko idazkariaren 2024ko urriaren 30eko idazkiaren arabera.

Bat etorri abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarritik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesua arautzen duen 13. oinarri orokorarekin (2022ko abenduaren 16ko ALHAO, 144. zk.).

Aurretik adierazitakoarekin bat etorri, eta indarreko legeriak eta, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 21.1.h) eta 102.2 artikuluek, eta Toki Araubidearen arloan indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren (TATB) 136. artikulua eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak ematen dizkidaten eskumenak baliatuz, honako hau

Alkate honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua h) apartatua oinarrituta, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.– Pedro María Miranda Arana (NAN: XX586XXX) Lantziegoko Udaleko zerbitzu askotarako behargin lanpostuan langile lan kontratudun finko izendatzea.

Lanaldia: ehuneko 100.

BIGARRENA.– Ebazpen hau izendatutako izangaiari jakinaraztea eta lan kontratudun langile finko gisa dagokion lan kontratua sinatzeko eskatzea. Kontratua hilabeteko epean sinatu beharko da, ebazpen hau jakinarazi ondorengo egunetik kontatzen hasita.

HIRUGARRENA.– Ebazpen honen edukia argitara ematea abenduaren 28ko 20/2021 Legearen (2022ko abenduaren 16ko ALHAO, 144. zk.) 6. eta 8. xedapen gehigarritik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesua arautzen duen 6. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan.

LAUGARRENA.– Ebazpen honen berri udalbatzari emango zaio hurrengo ohiko bilkuran.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke udal honetako alkateari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritz; edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz.

Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabakiz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi edo isilbidez ezetsi arte.

Nolanahi ere, komenigarriago jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Lantziego, 2024ko azaroaren 21a

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA